ZIZURKILGO UDALA

**OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA**

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2015eko martxoaren 13, ostirala**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

**EGUNEKO AZTERGAIAK**

**1.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2014.12.15 eta 2015.02.10).**

**2.- 2015 URTERAKO AURREKONTUA ETA UDALEKO PLANTILA ORGANIKOA ONARTZEA.**

**3.- 2015 URTERAKO UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA.**

**4.- FUTBOL ZELAIAREN BIRMOLDAKETA OBREN 3. ETA 4. ETA LIKIDAZIOAREN ZIURTAGIRIAK ONARTZEA.**

**5.- GIZARTEAREN MESEDERAKO ESPETXE-ZIGORRAK ZIZURKILGO UDALAREN ALDE LAN EGINEZ ORDEZKATZEKO, UDALAREN BARNE FUNTZIONAMENDURAKO IRIZPIDEAK ONARTZEA.**

**6.- ERREGISTRO ZIBILEN PRIBATIZAZIOARI BURUZ MOZIOA.**

**7.- TOLOSALDEA SAHARAREKIN G.K.E.K AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

**CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO**

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **13 de Marzo de 2.015, viernes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

**ORDEN DEL DIA**

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (15.12.2014 y 10.02.2015).**

**2.- APROBACION DEL PRESUPUESTO DEL AÑO 2.015 JUNTO CON LA PLANTILLA ORGANICA.**

**3.- APROBACION DE LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO PARA EL AÑO 2.015**

**4.- APROBACION DE LAS CERTIFICACIONES Nº 3 Y 4 Y LIQUIDACION DE LAS OBRAS DE REMODELACION DEL CAMPO DE FUTBOL.**

**5.- APROBACION DE LOS CRITERIOS PARA EL FUNCIONAMIENTO INTERNO DE LA SUSTITUCION DE PENAS DE PRISION POR TRABAJOS EN EL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL PARA BENEFICIO DE LA COMUNIDAD.**

**6.- MOCION SOBRE LA PRIVATIZACION DE LOS REGISTROS CIVILES.**

**7.- MOCION PRESENTADA POR TOLOSALDEA SAHARAREKIN G.K.E.**

ZIZURKILGO UDALA

**8.- TORTURAREN AURKAKO ETA GIZA ESKUBIDE GUZTIEN ALDEKO MOZIOA.**

**9.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2014/198tik 2014/208ra eta 2015/1etik 2015/28ra).**

**10.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

Zizurkilen, 2015eko martxoaren 10ean

Alkatea.

**8.- MOCION CONTRA LA TORTURA Y A FAVOR DE TODOS LOS DERECHOS HUMANOS.**

**9.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (198/2014 al 208/2014 y del 1/2015 al 28/2015).**

**10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Zizurkil, 10 de Marzo de 2.015

El Alcalde.

ZIZURKILGO UDALA

ALKATEGOA

Teodoro Hernandorena kalea, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 30 66 – Fax: 943 69 36 74 – e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

ZIZURKILGO UDALA

**2015eko MARTXOAREN 13an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION DE PLENO ORDINARIO CELEBRADA EL DIA 13 DE MARZO DE 2.015**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA / ALCALDE:**
José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**
Eva Usandizaga Mujika (Bildu)
Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)
Mª Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)
Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)
Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)
Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu).
Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.)
Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**
José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabosteko martxoaren hamahiruko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) eta Aritz Esnaola Arruti (Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día trece de Marzo de dos mil quince, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) y Aritz Esnaola Arruti (Bildu).

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da, eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2014.12.15 eta 2015.02.10).**

Udalbatzak, ahobatez, erabaki du 2014ko abenduaren 15ean eta 2015eko otsailaren 10ean egindako Bilkuretako Aktak onartzea.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (15.12.2014 y 10.02.2015).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar los Actas de los Plenos celebrados los días 15 de Diciembre de 2.014 y 10 de Febrero de 2.015

**2.- 2015 URTERAKO AURREKONTUA ETA UDALEKO PLANTILA ORGANIKOA ONARTZEA.**

Alkate Jaunak 2015 urterako Aurrekontua dagokion Plantila Organikoarekin aurkeztu du onartzeko.

E.A.J.-P.N.V.k adierazi du abstenitu egingo dela bozketan, ez duelako parte hartu aurrekontua egiteko prozesuan. Horrez gain, argudiatu du udal-taldeak ez diela erantzun gai horri buruz alkatearekin edukitako bileran egindako eskaerei.

Ogasun Batzordearen aldeko irizpena ere ikusi da.

Kontuan hartu dira ondoko lege eta araudiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 14 eta 15 artikuluak eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoa

Ondoren 2015 urteko Aurrekontua eta Plantila Organikoa onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 7 (7 Bildurenak).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 2 (2 E.A.J.-P.N.V.renak).

Beraz, Udalbatzarrak, gehiengo absolutuaren botuekin hau erabaki du:

Lehena.- Hasierako onespena ematea 2015 urteko Aurrekontuari eta dagokion Plantila Organikoari. Akta honen I eta II Eranskinetan jasota daudenak.

Bigarrena.- Hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, interesdunek erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da 2015 urteko Aurrekontua eta Plantila Organikoa eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**2.- APROBACION DEL PRESUPUESTO DEL AÑO 2.015 JUNTO CON LA PLANTILLA ORGANICA.**

El Señor Alcalde presenta para su aprobación el Presupuesto para el ejercicio de 2.015, junto con la correspondiente plantilla Orgánica.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que van a abstenerse en la votación ya que no han sido partícipes en la confección del Presupuesto y además el equipo de gobierno tampoco ha respondido a las peticiones planteadas en la reunión que para tratar del tema tuvieron con el Alcalde.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Hacienda.

Vistos los artículos 14 y 15 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de Diciembre y lo dispuesto en la Ley 7/1985 de 2 de Abril reguladora de las Bases de Régimen Local

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación del Presupuesto del ejercicio 2.015 y la Plantilla Orgánica, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 7 (7 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 2 (2 de E.A.J.-P.N.V.).

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría absoluta, acuerda:

Primero.- Aprobar inicialmente el Presupuesto del año 2.015, junto con la Plantilla Orgánica para dicho ejercicio, reflejados ambos en los Anexos I y II del presente Acta.

Segundo.- Exponer el expediente al público, previo anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por un periodo de quince días, a fin de que por los interesados puedan formularse reclamaciones.

Tercero.- El Presupuesto del año 2.015, junto con la Plantilla Orgánica, se entenderá aprobado definitivamente en el caso de que no se presenten reclamaciones ni sugerencias, y será publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**3.- 2015 URTERAKO UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA.**

2015 urterako Udaleko Lanpostuen Zerrenda aurkezten da onartzeko.

Kontuan hartu dira ondoko lege eta araudiak: Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 14 eta hurrengo artikuluak, Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegile bidez onarturiko Toki Araubidean indarrean dauden Xedapenen Testu Bateginaren 126. artikulua.

Espedientea ikusi da eta baita Ogasun Batzordearen aldeko irizpena

Ondoren 2015 urterako Udaleko Lanpostuen Zerrenda onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 7 (7 Bildurenak).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 2 (2 E.A.J.-P.N.V.renak).

Beraz, Udalbatzarrak, gehiengo absolutuaren botuekin hau erabaki du:

Lehena.- Hasierako onespena ematea 2015 urterako Udaleko Lanpostuen Zerrendari, Akta honen III Eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.- Hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, interesdunek erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da 2015 urterako Udaleko Lanpostuen Zerrenda eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**3.- APROBACION DE LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO PARA EL AÑO 2.015**

Se presenta para su aprobación la Relación de Puestos de Trabajo para el ejercicio de 2.015

Vistos los artículos 14 y siguientes de la Ley 6/1989, de 6 de julio de la Función Pública Vasca, el artículo 90 de la Ley 7/1985 de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local, el artículo 126 del Texto Refundido de las Disposiciones vigentes en materia de Régimen Local aprobado mediante Real Decreto legislativo 781/1986, de 18 de abril.

Visto el expediente y el dictamen favorable de la Comisión de Hacienda.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Relación de Puestos de Trabajo para 2.015, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 7 (7 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 2 (2 de E.A.J.-P.N.V.).

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría absoluta, acuerda:

Primero.- Aprobar inicialmente la Relación de Puestos de Trabajo para 2.015, que se refleja en el Anexo III del presente Acta.

Segundo.- Exponer el expediente al público, previo anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por un periodo de quince días, a fin de que por los interesados puedan formularse reclamaciones.

Tercero.- La Relación de Puestos de Trabajo para 2.015 se entenderá aprobada definitivamente en el caso de que no se presenten reclamaciones ni sugerencias, y será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**4.- FUTBOL ZELAIAREN BIRMOLDAKETA OBREN 3. ETA 4. ETA LIKIDAZIOAREN ZIURTAGIRIAK ONARTZEA.**

Futbol zelaiaren birmoldaketa obren 3. eta 4. eta Likidazioaren Ziurtagiriak aurkeztu dira.

Udal teknikoen eta Ogasuneko Batzordearen aldeko txostenak ikusi dira.

Ondoren, Udalbatzak ziurtagiri hauek onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 7 (7 Bildurenak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 2 (2 E.A.J.-P.N.V.renak).

Beraz, botuen gehiengoz, aurkeztutako bi Ziurtagiriak onartzea erabaki da: 82.354,62 eurokoa hirugarrena eta 92.579,93 eurokoa laugarrena eta obren likidazioarena.

**4.- APROBACION DE LAS CERTIFICACIONES Nº 3 Y 4 Y LIQUIDACION DE LAS OBRAS DE REMODELACION DEL CAMPO DE FUTBOL.**

Se presentan las Certificaciones nº 3 y 4 y Liquidación de las obras de remodelación del campo de fútbol.

Se da cuenta de los informes favorables de los técnicos municipales y de la Comisión de Hacienda.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación corresponde para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 7 (7 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 2 (2 de E.A.J.-P.N.V.).

por lo que, por mayoría de votos, se acuerda aprobar las dos Certificaciones presentadas: la tercera por importe de 82.354,62 euros y la cuarta y liquidación de obras por importe de 92.579,93 euros.

**5.- GIZARTEAREN MESEDERAKO ESPETXE-ZIGORRAK ZIZURKILGO UDALAREN ALDE LAN EGINEZ ORDEZKATZEKO, UDALAREN BARNE FUNTZIONAMENDURAKO IRIZPIDEAK ONARTZEA.**

"Gizartearen mesederako espetxe-zigorrak Zizurkilgo Udalaren alde lan eginez ordezkatzeko, udalaren barne funtzionamendurako irizpideak" dokumentua aurkezten da onartzeko.

Ondoren aipatutako dokumentua onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 9 (7 Bildurenak eta 2 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

**5.- APROBACION DE LOS CRITERIOS PARA EL FUNCIONAMIENTO INTERNO DE LA SUSTITUCION DE PENAS DE PRISION POR TRABAJOS EN EL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL PARA BENEFICIO DE LA COMUNIDAD.**

Se presenta para su aprobación el documento de los "Criterios para el funcionamiento interno de la sustitución de penas de prisión por trabajos en el Ayuntamiento de Zizurkil para beneficio de la comunidad".

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de dicho documento, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 9 (7 de Bildu y 2 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, aho batez, "Gizartearen mesederako espetxe-zigorrak Zizurkilgo Udalaren alde lan eginez ordezkatzeko, udalaren barne funtzionamendurako irizpideak" deitzen den dokumentua onartzea erabaki du. Akta honen IV Eranskinean jasota dago dokumentua.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el documento de los "Criterios para el funcionamiento interno de la sustitución de penas de prisión por trabajos en el Ayuntamiento de Zizurkil para beneficio de la comunidad", que se refleja en el Anexo IV del presente Acta.

**6.- ERREGISTRO ZIBILEN PRIBATIZAZIOARI BURUZ MOZIOA.**

Akta honen V Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Ondoren Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako Mozioa onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: Alde: 9 (7 Bildurenak eta 2 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

**6.- MOCION SOBRE LA PRIVATIZACION DE LOS REGISTROS CIVILES.**

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo V del presente Acta.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación corresponde para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (7 de Bildu y 2 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar la Moción presentada.

**7.- TOLOSALDEA SAHARAREKIN G.K.E.K AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Akta honen VI eta VII Eranskinetan jasota daude Sahararen gaurko egoerari buruz aurkeztu diren bi Mozioak.

Ondoren, Udalbatzak Mozioak onartzeko dagokion bozketa egiten du, eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 9 (7 Bildurenak eta 2 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

beraz, Udalbatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako Mozioak onartzen ditu.

**7.- MOCION PRESENTADA POR TOLOSALDEA SAHARAREKIN G.K.E.**

Se presentan dos Mociones relacionadas con la situación actual del Sahara, que son las que se reflejan en los Anexos VI y VII del presente Acta.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación corresponde para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (7 de Bildu y 2 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar las Mociones presentadas.

**8.- TORTURAREN AURKAKO ETA GIZA ESKUBIDE GUZTIEN ALDEKO MOZIOA.**

Akta honen VIII Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Ondoren Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako Mozioa onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: Alde: 9 (7 Bildurenak eta 2 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

**8.- MOCION CONTRA LA TORTURA Y A FAVOR DE TODOS LOS DERECHOS HUMANOS.**

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo VIII del presente Acta.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación corresponde para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (7 de Bildu y 2 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar la Moción presentada.

**9.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2014/198tik 2014/208ra eta 2015/1etik 2015/28ra).**

198/2014tik 208/2014ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2014ko abenduaren 15etik 30era Alkateak sinatutakoak eta 1/2015etik 28/2015era zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2015eko ilbeltzaren 9tik otsailaren 27ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Beste aztergairik gabe, eta hemezortzi orduak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

**9.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (198/2014 al 208/2014 y del 1/2015 al 28/2015).**

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 198/2014 al 208/2014, firmados por la Alcaldía entre el 15 y el 30 de Diciembre de 2.014 y también se presentan los Decretos nº 1/2015 al 28/2015, firmados por la Alcaldía entre el 9 de Enero y el 27 de Febrero de 2.015, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

**O.I.** **Vº Bº**

**ALKATEA.** **EL ALCALDE.**

ZIZURKILGO UDALA
ALKATEGOA

# I ERANSKINA -- ANEXO I

| 2015erako DIRUSARREREN AURREKONTUA | | PRESUPUESTO DE INGRESOS PARA EL 2.015 |
|---|---|---|
| 1 KAPITULUA | ZERGA ZUZENAK<br>IMPUESTOS DIRECTOS | 621.775 |
| 2 KAPITULUA | ZEHARKAKO ZERGAK<br>IMPUESTOS INDIRECTOS | 90.000 |
| 3 KAPITULUA | TASAK ETA BESTE DIRUSARRERAK<br>TASAS Y OTROS INGRESOS | 329.260 |
| 4 KAPITULUA | OHIZKO TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 1.776.230 |
| 5 KAPITULUA | DIRUSARRERA PATRIMONIALAK<br>INGRESOS PATRIMONIALES | 20.600 |
| 7 KAPITULUA | KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 467.080 |
| 8 KAPITULUA | FINANTZA AKTIBOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | 4.510 |
| | | |
| | **GUZTIRA / TOTAL** | **3.309.455** |

| 2015erako GASTUEN AURREKONTUA | | PRESUPUESTO DE GASTOS PARA EL 2.015 |
|---|---|---|
| 1 KAPITULUA | LANGILEEN ORDAINKETA<br>REMUNERACIONES DEL PERSONAL | 1.114.290 |
| 2 KAPITULUA | ONDASUN ETA ZERBITZUAK EROSTEA<br>COMPRA DE BIENES Y SERVICIOS | 531.365 |
| 3 KAPITULUA | INTERESAK<br>INTERESES | 27.850 |
| 4 KAPITULUA | OHIZKO TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 612.505 |
| 6 KAPITULUA | INBERTSIO ERREALAK<br>INVERSIONES REALES | 733.200 |
| 9 KAPITULUA | FINANTZA PASIBOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | 290.245 |
| | | |
| | **GUZTIRA / TOTAL** | **3.309.455** |

ZIZURKILGO UDALA

# II ERANSKINA – ANEXO II

## 2015. URTEKO PLANTILA ORGANIKOA

### 1- KARRERAKO FUNTZIONARIORENTZAT GORDETAKO PLAZAK

| *Izena* | *Kopurua* | *Taldea* | *Egoera* |
|---|---|---|---|
| IZAERA NAZIONALEKO HABILITAZIO ESKALA | | | |
| *Idazkaritza-Kontuhartzailetza azpieskala* | | | |
| Idazkari-Kontuhartzailea, 3.Maila | 1 | A1 | Jabetzan |
| ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA | | | |
| *Administrarien Azpiezkala* | | | |
| Administraria | 3 | C1 | 2 Jabetzan<br>1 Hutsa |
| *Laguntzaileen Azpieskala* | | | |
| Administrari Laguntzailea | 1 | C2 | Jabetzan |
| ADMINISTRAZIO BERIZIKO ESKALA | | | |
| *Azpiezkala Teknikoa* | | | |
| - Goi Mailako teknikarien mota | | | |
| Goi mailako teknikaria (Arkitektoa) | 1 | A1 | Jabetzan |
| - Erdi Mailako teknikarien mota | | | |
| Erdi mailako teknikaria | 4 | A2 | Jabetzan |
| - Teknikari Laguntzaileen mota | | | |
| Teknikari laguntzailea | 1 | C1 | Jabetzan |
| ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA | | | |
| - Udaltzainak eta hauen laguntzaileen mota | | | |
| Udaltzain laguntzailea | 3 | C2 | Jabetzan |
| - Lanbideetako langileen mota | | | |
| Arduraduna | 1 | C2 | Jabetzan |
| Ofiziala | 1 | C2 | Jabetzan |
| Eraikinen zaintzailea | 1 | C2 | Jabetzan |

### 2- LAN KONTRATU FINKOKO LANGILEEI GORDETAKO PLAZAK

| *Izena* | *Kopurua* | *Taldea* | *Egoera* |
|---|---|---|---|
| Peoi-Laguntzailea | 1 | E | Jabetzan |
| Kalegarbitzailea | 2 | E | 1 Hutsa |
| Udal eraikin eta instalazio garbitzailea | 4 | E | 2 Jabetzan<br>2 Hutsak |

ZIZURKILGO UDALA

# PLANTILLA ORGANICA PARA EL AÑO 2015

## 1. PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

| *Denominación* | *Plaza* | *Cargo* | *Situación* |
|---|---|---|---|
| ESCALA DE HABILITADOS NACIONALES | | | |
| *Subescala de Secretaría Intervención* | | | |
| Secretario-Interventor, clase tercera | 1 | A1 | Propiedad |
| ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL | | | |
| *Subescala Administrativa* | | | |
| Administrativo | 3 | C1 | 2 Propiedad<br>1 Vacante |
| *Subescala Auxiliar* | | | |
| Auxiliar Administrativo | 1 | C2 | Propiedad |
| ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL | | | |
| *Subescala Técnica* | | | |
| - Clase Técnicos Superiores | | | |
| Técnico superior (Arquitecto) | 1 | A1 | Propiedad |
| - Clase Técnicos Medios | | | |
| Técnico medio | 4 | A2 | Propiedad |
| - Clase Técnicos Auxiliares | | | |
| Técnico auxiliar | 1 | C1 | Propiedad |
| SUBESCALA DE SERVICIOS ESPECIALES | | | |
| - Clase Policía Municipal y sus Auxiliares | | | |
| Auxiliar de policía municipal | 3 | C2 | Propiedad |
| - Clase Personal de Oficios | | | |
| Encargado | 1 | C2 | Propiedad |
| Oficial | 1 | C2 | Propiedad |
| Mantenimiento de edificios | 1 | C2 | Propiedad |

## 2. PLAZAS RESERVADAS A PERSONAL LABORAL FIJO

| *Denominación* | *Plaza* | *Cargo* | *Situación* |
|---|---|---|---|
| Peón-Enterrador | 1 | E | Propiedad |
| Barrendero | 2 | E | 1 Vacante |
| Limpieza edificios e instalaciones | 4 | E | 2 Propiedad<br>2 Vacantes |

# III ERANSKINA – ANEXO III

## 2015eko LANPOSTUEN ZERRENDA

### KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

| **Identifikazioa** | | | | | | | **Eskaturiko baldintzak** | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *LK* | *Izena* | *D* | *PS* | *DM* | *L O* | *O. Ber.* | *T* | *E* | *AZP* | *TIT.* | *Baldintza bereziak* | *HE* | *Der. Data.* | *Oharrak* |
| 1 | Idazkari-kontuhartzailea | 1 | L | 1 | 25 | 17.941,84 | A1 | GN | 1.1 | 500 | | 4 | 94-12 | |
| 2 | Arkitektoa | 1 | C | 2** | 24 | 8.430,24 | A1 | AB | 2.1 | 549 | | 4 | 09-06 | |
| 3 | Administrazioa, izapideak eta itzulpenak | 1 | L | 1 | 19 | 13.746,60 | C1 | AO | 3.0 | 300 | | TG | 94-12 | |
| 4 | Kudeaketa ekonomia | 1 | L | 1 | 18 | 13.746,60 | C1 | AO | 3.0 | 300 | | 3 | 03-04 | |
| 5 | Administrazio izapideak | 1 | L | 1 | 17 | 12.627,58 | C1 | AO | 3.0 | 300 | | 3 | 06-06 | |
| 6 | Herritarren arreta Elbarrena | 1 | L | 1 | 14 | 16.083,48 | C2 | AO | 4.0 | 200 | | 3 | 94-12 | Osagarri Bereziaren barne, Osagarri Pertsonal Iragankorrari dagokion kopurua sartuta dago. |
| 7 | Obra eta Zerbitzuak Saileko Burua | 1 | L | 2* | 22 | 13.949,60 | A2 | AB | 2.2 | 401 | | 3 | 01-06 | |
| 8 | Kultura-Euskara-Hezkuntza-Gazteria-Kirola Saileko Burua | 1 | L | 3 | 21 | 18.904,60 | A2 | AB | 2.2 | 400 | | 4 | 01-06 | |
| 9 | Ingurumena eta Landa Garapena Saileko Burua | 1 | L | 3 | 20 | 18.104,52 | A2 | AB | 2.2 | 402 | | 3 | 03-06 | |
| 10 | Gizarte Langilea | 1 | L | 1 | | | A2 | AB | 2.2 | 403 | | 3 | 94-12 | Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatera adskribatua . Lanpostu honen balorazioa ez da egin. |
| 11 | Liburuzaina | 1 | L | 1 | 20 | 14.800,94 | C1 | AB | 2.3 | 300 | | 3 | 92-06 | |
| 12 | Segurtasuna, Trafikoa eta Hiritarren babesa Saileko Burua | 1 | L | 3 | 18 | 17.614,80 | C2 | AB | 5.1 | 200 | BTP GIDA BAIMENA | 3 | 04-06 | Zerbitzurako erabateko baliagarritasuna |
| 13 | Udaltzain Laguntzailea | 2 | L | 3 | 14 | 13.489,70 | C2 | AB | 5.1 | 200 | B-1 GIDA BAIMENA | 2 | 04-06 | Zerbitzurako erabateko baliagarritasuna |
| 14 | Obra eta Zerbitzuetako arduraduna | 1 | L | 4 | 18 | 21.546,14 | C2 | AB | 5.2 | 200 | C GIDA BAIMENA | 2 | 01-06 | |
| 15 | Udal eraikinen zaintze eta mantentze lanak | 1 | L | 1 | 13 | 12.434,94 | C2 | AB | 5.2 | 200 | B-1 GIDA BAIMENA | 2 | 06-06 | |
| 16 | Ofizial-Igeltseroa | 1 | L | 1 | 14 | 13.636,42 | C2 | AB | 5.2 | 200 | C GIDA BAIMENA | 2 | 01-12 | |

ZIZURKILGO UDALA

# LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOEI GORDETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

| **Identifikazioa** | | | | | | | **Eskatutako baldintzak** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *LK* | *Izena* | *D* | *PS* | *DM* | *LO* | *O. Ber.* | *T* | *E* | *TIT.* | *Baldintza bereziak* | *HE* | *Der. Data* |
| 1 | Peoi-Lurperatzailea | 1 | L | 3 | 16 | 13.715,94 | E | AB | 100 | B-1 GIDA BAIMENA | 2 | 94-12 |
| 2 | Kalegarbizailea | 1 | L | 1 | 12 | 12.636,96 | E | AB | 100 | B-1 GIDA BAIMENA | 2 | 94-12 |
| 3 | Kalegarbitzailea | 1 | L | 1 | 11 | 12.333,58 | E | AB | 100 | B-1 GIDA BAIMENA | 2 | 03-06 |
| 4 | Udal eraikin eta instalazioen garbiketa | 4 | L | 1 | 11 | 11.669,98 | E | AB | 100 | | 2 | 94-12 |

# RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO DE 2.015

## RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL FUNCIONARIO DE CARRERA

| Identificación | | | | | | | Requisitos exigidos | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| CP | Denominación | D | SP | DE | CD | C. Especif. | G | E | SUB | TIT. | Requisitos específicos | PL | Fecha Prec. | Observaciones |
| 1 | Secretario-interventor | 1 | C | 1 | 25 | 17.941,84 | A1 | HN | 1.1 | 500 | | 4 | 12-94 | |
| 2 | Arquitecto | 1 | C | 2** | 24 | 8.430,24 | A1 | AE | 2.1 | 549 | | 4 | 06-09 | |
| 3 | Administración, Trámites y Traducción | 1 | C | 1 | 19 | 13.746,60 | C1 | AG | 3.0 | 300 | | TG | 12-94 | |
| 4 | Gestión y Economía | 1 | C | 1 | 18 | 13.746,60 | C1 | AG | 3.0 | 300 | | 3 | 04-03 | |
| 5 | Trámites administrativos | 1 | C | 1 | 17 | 12.627,58 | C1 | AG | 3.0 | 300 | | 3 | 06-06 | |
| 6 | Atención al público Elbarrena | 1 | C | 1 | 14 | 16.083,48 | C2 | AG | 4.0 | 200 | | 3 | 12-94 | En el Complemento Específico está incluido el importe del Complemento Personal Transitorio. |
| 7 | Jefe del Departamento de Obras y Servicios | 1 | C | 2* | 22 | 13.949,60 | A2 | AE | 2.2 | 401 | | 3 | 06-01 | |
| 8 | Jefe del Departamento de Cultura-Euskara-Eduzación-Juventud y Deporte | 1 | C | 3 | 21 | 18.904,60 | A2 | AE | 2.2 | 400 | | 4 | 06-01 | |
| 9 | Jefe del Departamento de Medio Ambiente y Desarrollo Rural | 1 | C | 3 | 20 | 18.104,52 | A2 | AE | 2.2 | 402 | | 3 | 06-03 | |
| 10 | Trabajadora Social | 1 | C | 1 | | | A2 | AE | 2.2 | 403 | | 3 | 12-94 | Adscrita a la Mancomunidad de Servicios Aiztondo Pendiente de valoración. |
| 11 | Bibliotecaria | 1 | C | 1 | 20 | 14.800,94 | C1 | AE | 2.3 | 300 | | 3 | 06-92 | |
| 12 | Jefe del Departamento de Seguridad, Tráfico y Protección Ciudadana | 1 | C | 3 | 18 | 17.614,80 | C2 | AE | 5.1 | 200 | CARNET CONDUCIR BTP | 3 | 06-04 | Disponibilidad absoluta para el servicio |
| 13 | Auxiliar de la Policía Municipal | 2 | C | 3 | 14 | 13.489,70 | C2 | AE | 5.1 | 200 | CARNET CONDUCIR B-1 | 2 | 06-04 | Disponibilidad absoluta para el servicio |
| 14 | Encargado de Obras y Servicios | 1 | C | 4 | 18 | 21.546,14 | C2 | AE | 5.2 | 200 | CARNET CONDUCIR C | 2 | 06-01 | |
| 15 | Cuidado y Mantenimiento de edificios municipales | 1 | C | 1 | 13 | 12.434,94 | C2 | AE | 5.2 | 200 | CARNET CONDUCIR B-1 | 2 | 06-06 | |
| 16 | Oficial-Albañil | 1 | C | 1 | 14 | 13.636,42 | C2 | AE | 5.2 | 200 | CARNET CONDUCIR C | 2 | 12-01 | |

ZIZURKILGO UDALA

RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL FIJO

| Identificación | | | | | | | Requisitos exigidos | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| CP | Denominación | D | SP | DE | CD | C. Especif. | G | E | TIT. | Requisitos específicos | PL | Fecha Prec. |
| 1 | Peon-enterrador | 1 | C | 3 | 16 | 13.715,94 | E | AE | 100 | CARNET CONDUCIR B-1 | 2 | 12-94 |
| 2 | Barrendero | 1 | C | 1 | 12 | 12.636,96 | E | AE | 100 | CARNET CONDUCIR B-1 | 2 | 12-94 |
| 3 | Barrendero | 1 | C | 1 | 11 | 12.333,58 | E | AE | 100 | CARNET CONDUCIR B-1 | 2 | 06-03 |
| 4 | Limpieza de edificios e instalaciones municipales | 4 | C | 1 | 11 | 11.669,98 | E | AE | 100 | | 2 | 12-94 |

Teodoro Hernandorena kalea, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 30 66 – Fax: 943 69 36 74 – e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

ZIZURKILGO UDALA

# GAKOEN TAULAK/TABLAS DE CLAVES

| LK: Lanpostuaren kodea | CP:Código de Puesto |
|---|---|

| D:Lanpostuaren Dotazioak | D: Dotaciones del Puesto |
|---|---|

| PS: Probisio Sistema | | SP: Sistema de Provisión | |
|---|---|---|---|
| L | LEHIAKETA | C | CONCURSO |

| DM: Dedikazio Mota | | DE: Régimen de dedicación |
|---|---|---|
| 1 | DEDIKAZIO ARRUNTA | DEDICACION ORDINARIA |
| 2 | LANALDI PARTZIALA<br>* 75,00%<br>** 50,00% | JORNADA PARCIAL<br>* 75,00%<br>* * 50,00% |
| 3 | PRESTASUNA LANALDIA LUZATU GABE | DISPONIBILIDAD SIN AMPLIACIÓN DE JORNADA |
| 4 | PRESTASUNA LANALDIA LUZATUTA | DISPONIBILIDAD CON AMPLIACION DE JORNADA |

| LO: LANPOSTU OSAGARRIA | CD: COMPLEMENTO DE DESTINO |
|---|---|

| O. BER.: OSAGARRI BEREZIAREN ZENBATEKOA | C. ESPECIF: IMPORTE DEL COMPLEMENTO ESPECIFICO |
|---|---|

| T: SAILKAPEN TALDEA | G: GRUPO DE CLASIFICACION |
|---|---|

| E: ESKALA | | E: ESCALA | |
|---|---|---|---|
| GN | GAIKUNTZA NAZIONALA | HN | HABILITACION NACIONAL |
| AO | ADMINISTRAZIO OROKORRA | AG | ADMINISTRACION GENERAL |
| AB | ADMINISTRAZIO BEREZIA | AE | ADMINISTRACION ESPECIAL |

| | | AZP: AZPIESKALA/KLASEA | SUB: SUBESCALA/CLASE |
|---|---|---|---|
| 1 | 1 | Idazkari-kontuhartzaileen azpieskala<br><br>Klasea: Hirugarrena (3.) | Subescala de Secretaría –Intervención<br><br>Clase Tercera (3ª) |
| 2 | 1 | Teknikarien azpieskala<br><br>Goi mailako Teknikarien Klasea | Subescala Técnica<br><br>Clase Técnicos Superiores |
| 2 | 2 | Teknikarien azpieskala<br><br>Erdi mailako Teknikarien Klasea | Subescala Técnica<br><br>Clase Técnicos Medios |
| 2 | 3 | Teknikarien azpieskala<br><br>Teknikari Laguntzaileen Klasea | Subescala Técnica<br><br>Clase Técnicos Auxiliares |
| 3 | 0 | Administrarien azpieskala | Subescala Administrativa |
| 4 | 0 | Laguntzaileen Azpieskala | Subescala Auxiliar |
| 5 | 1 | Zerbitzu Berezietako Azpieskala<br><br>Udaltzain Laguntzaileak mota | Subescala Servicios Especiales<br><br>Clase Auxiliares de Policía Municipal |
| 5 | 2 | Zerbitzu Berezietako Azpieskala<br><br>Lanbideetako enplegatuak mota | Subescala Servicios Especiales<br><br>Clase Personal de Oficios |

| | TIT: TITULAZIOA | TIT: TITULACION |
|---|---|---|
| 100 | ESKOLA ZIURTAGIRIA | CERTIFICADO DE ESCOLARIDAD |
| 200 | ESKOLAKO GRADUATUA, LH1 EDO BALIOKIDEA | GRADUADO ESCOLAR, FP1 O EQUIVALENTE |
| 300 | BATXILERRA, LH2 EDO BALIOKIDEA | BACHILLER, FP2 O EQUIVALENTE |
| 400 | DIPLOMATURA | DIPLOMATURA |
| 401 | ARKITEKTO TEKNIKOA | ARQUITECTO TECNICO |
| 402 | NEKAZAL INGENIARI TEKNIKOA EDO NEKAZAL INGENIARITZAKO HIRU IKASTURTE OSORIK | INGENIERO TÉCNICO AGRICOLA O TRES CURSOS COMPLETOS DE INGENRIERO AGRONOMO |
| 403 | GIZARTE LANEKO DIPLOMATUA | DIPLOMADO EN TRABAJO SOCIAL |
| 500 | ZUZENBIDEAN, POLITIKA ETA ADMINISTRAZIO ZIENTZIETAN, SOZIOLOGIAN, ADMINISTRAZIO ETA ENPRESEN ZUZENDARITZAN, EKONOMIA EDO AKTUARIAL ETA FINANTZA ZIENTZIETAN LIZENTZIATUA. | LICENCIADO EN DERECHO, EN CIENCIAS POLÍTICAS Y DE LA ADMINISTRACIÓN, EN SOCIOLOGÍA, EN ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS, EN ECONOMÍA, EN CIENCIAS ACTUARIALES Y FINANCIERAS. |
| 501 | ZUZENBIDEA, ZIENTZIA POLITIKOAK, EKONOMIA EDO ENPRESA ZIENTZIETAKO LIZENTZIATUA, MERKATU KONTUHARTZAILEA EDO JARDULEA | LICENCIADO EN DERECHO, EN CIENCIAS POLITICAS, ECONOMICAS O EMPRESARIALES, INTENDENTE MERCANTIL O ACTUARIO. |
| 549 | ARKITEKTO | ARQUITECTO |

| HE: HIZKUNTZA ESKAKIZUNA | PL: PERFIL LINGÜISTICO |
|---|---|

| DER. DATA: HIZKUNTZA ESKAKIZUNAREN DERRIGORTASUN DATA | FECHA PREC.: FECHA DE PRECEPTIVIDAD DEL PERFIL LINGÜISTICO |
|---|---|

# IV ERANSKINA - ANEXO IV

## GIZARTEAREN MESEDRAKO ESPETXE-ZIGORRAK ZIZURKILGO UDALAREN ALDE LAN EGINEZ ORDEZKATZEKO, UDALAREN BARNE FUNTZIONAMENDURAKO IRIZPIDEAK

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten lau herrietan (Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkil) bizi diren pertsonek gizartearen mesederako lan egiteko aukera izango dute, epaiak ezarritako kartzela zigorraren ordez.

**Baldintzak.**

Espetxe- zigorrak herriaren aldeko lan egiteko zigorretan bete daitezen, eskatzaileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten lau herrietakoren batean erroldatuta egotea; Zizurkilgo herrian burutu beharreko lanak nork egin erabakitzerakoan, bertan erroldatuta daudenek lehentasuna izango dute.
- Adin txikikoen aurkako delituak eta genero-indarkeria gisa kalifikatutako delituengatik zigorrak dituzten kasuak ez dira onartuko.

**Egingo diren lanak.**

Espetxe- zigorrak Zizurkilgo herriaren alde egindako lanen bidez betetzeko, lan horiek momentu bakoitzean Udalak dituen beharren arabera definituko dira. Horregatik, eskaera egiten den momentuan Udalak zerbitzu honi eskaintzeko lanik ez badu, eskaera ez onartzeko aukera izango du.

## CRITERIOS PARA EL FUNCIONAMIENTO INTERNO DE LA SUSTITUCION DE PENAS DE PRISION POR TRABAJOS EN EL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL PARA BENEFICIO DE LA COMUNIDAD.

Las penas de prisión de las personas residentes en los cuatro municipios que componen la Mancomunidad de Servicios Aiztondo (Aduna, Alkiza, Larraul y Zizurkil), pueden realizar trabajos en beneficio de la comunidad establecida por el juez, en sustitución a la pena de prisión.

**Requisitos.**

Para el cumplimiento de penas de prisión mediante penas de trabajo en beneficio de la comunidad, la persona solicitante deberá cumplir los siguientes requisitos:

- Estar empadronada en cualquiera de los cuatro municipios que componen la Mancomunidad de Servicios Aiztondo. A la hora de asignar el trabajo en el Ayuntamiento de Zizurkil se dará prioridad siempre a la persona empadronada en este municipio.
- No se admitirán casos de penas derivadas de delitos contra menores y delitos calificados como violencia de género.

**Trabajos asignados.**

En el cumplimiento de penas de prisión mediante trabajos en beneficio de la comunidad del Ayuntamiento de Zizurkil, dichos trabajos se definirán puntualmente en función de las necesidades del Ayuntamiento en ese momento. Así pues, se podrá desestimar las solicitudes presentadas cuando no se disponga de trabajo a asignar en ese momento.

ZIZURKILGO UDALA

**Lansaioaren ezaugarriak.**

Lan jardunak 2 orduko iraupena izango du gutxienez eta 7:20 ordu gehienez, jardunaldi jarraian.

Dena den, eskatzaileak planteatuko lan jarduna edota ordutegia eta Udalaren interesak bat ez badatoz, azken hauek izango dute lehentasuna eta, horrenbestez, Udalak eskaera ez onartzeko aukera izango du.

Zigortuak egingo duen lanak ez du lan harremanik eta ordaintzeko eskubiderik sortuko.

Eskatzaileari Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten Udaletakoren batean zigorrak betetzeak garraio edota mantenu gastuak sortuko balizkio, bere kontura izango lirateke.

**Prozedura.**

Espetxe-zigorra Zizurkilgo herriaren aldeko lanarekin ordezkatu nahi duenak eskaera idatziz egin beharko du horretarako Mankomunitatean finkatutako ereduan.

Eskaera-orria, behar bezala eta dagokion agiriekin, Zizurkilgo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean, aurkeztuko da.

Prozedura ondorengoa izango da:

- Eskatzaileari elkarrizketa egingo zaio Gizarte Zerbitzuetan.

Eskaera aztertu eta baloratu ostean, Zizurkilgo Udaletxera bideratuko da, honek erabaki dezan.

**Características de las sesiones de trabajo.**

La sesión de trabajo tendrá una duración mínima de 2 horas y máxima de 7 horas y 20 minutos, en jornada seguida.

No obstante, en caso de incompatibilidad entre la jornada y/o horario planteado por la persona solicitante y los intereses del Ayuntamiento, tendrá prioridad este último, pudiendo constituir causa de desestimación de la solicitud.

El trabajo que realice el penado no creará relación laboral alguna ni derecho a ser retribuido.

El Ayuntamiento de Zizurkil no asumirá gastos de transporte ni de manutención que pudiera tener el solicitante por cumplir la pena en dicha Mancomunidad.

**Procedimiento.**

